

Otsaileko langabezia tasa,  
aspaldiko altuena

The Hastelehen ´s musika  
taldearekin solasean

Astelehenean, NOAUA!ko  
batzarra Potxoenean

# noaua



**Lipdub**  
**arrakastatsu batekin hasi da**  
**X. Soinurbil Musika Astea**

**IRATXO  
TABERNA**

*\* EGUNEROKO MENUA \**  
*\* OSTEGUNETIK IGANDERA AFARIAK \**  
*\* OSTEGUNERO PINTXO-POTEA! \**  
 Zabalik 09.00etatik aurrera  
 (astelehena atseden eguna)

Borda Berri 5, USURBIL

**OGI BERRI**  
 ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...  
 IKUSI FUTBOL  
 PARTIDUAK  
 GUREKIN!**

egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
 PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Lehenengo 6  
 erosleentzako,  
 garaje bikoitza  
 banakako  
 prezioan!

**ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA**

**188.000 € tik**

**12 ETXEBIZITZA  
 INGURUNE PAREGABEAN  
 Agerreazpi,**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
 Lazkano Pasealekua, 1º Behea  
 20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

**www.viviendaslanin.com**

## Albiste iruditan

### Kortsikarrekin harremanak estutzen

**H**orretarako aitzakia ezin hobea izan zen martxoaren 13 eta 14rako Kantu Taldeak, Usurbilgo Udalarekin eta Iparra-Hegoa fundazioarekin batera, Usurbilen antolatu zuen topaketa. Sortuko kide Joseba Alvarezen Kortsikari buruzko hitzaldi batekin abiatu zen egitaraua. Eta boro-biltzeko, hango musikariak etorri ziren Usurbila. Ondoko irudian dituzue; Kantu Taldeko, Udaleko eta Iparra-Hegoa fundazioko ordezkariekin batera. L'Arcusgi musika talde kortsikarraz ari gara. Sutegin emanaldia eskaini zuten, eta gero, Kuxkuxtu taldekoekin batera, kantu-afari jendetsua ospatu zen Iruin sagardotegian. Bost urte bete berri dituen Kantu Taldeak 2014rako iragarri dituen ekimen berezien artean dugu, iragan asteko Euskal Herria-Kortsika topaketa.



Euskal Herria-Kortsika topaketako hainbat protagonista, udal ordezkariekin batera.

## Laburrean

### Ostiral honetan, mus txapelketa Bentan

Ostiral gau honetan, martxoaren 21ean. Izen ematea, 22:00-22:30 artean. Segidan karta joko.

Sariok banatuko dira:

1-3 kilo txuleta eta ardoa.

2-2 kilo txuleta eta ardoa.

3- 3 kilo saiheski eta ardoa.

4- 2 kilo saiheski eta ardoa.

### Ogigintza tailerra, Aitziber Elortzaren eskutik

Martxoaren 27an, 18:00etatik aurrera Agerialdeko jangelan. Aitziber Elortza herritarrak gidatuko du, oinarrizko ezagutzak ikasteko aukera emango duen saioa. Etumeta-AEK euskaltegiak antolaturiko ekimen honetan parte hartzeko aurrez eman behar da izena. Prezioa: 2 euro. Tupper bat eta espatula bat eraman. 607 609 079.

### EHGAM-en afaria Arratzain sagardotegian

Martxoaren 29an larunbata egingo da afaria baina aurrez eman beharko da izena, martxoaren 24a baino lehen. 24 euro ordaindu behar dira ondoko kontu korrontean: 3035 0063 82 0630030222 (Laboral Kutxa).

Ordaintek egiterakoan, ez ahaztu nork bere izen abizenak adierazteaz.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaua.com // www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

**erredakzioa@noaua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregerai eta Udaregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herria!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## Hain hurbil, eta horren urrun

Ezagutzen dut gorabehera emozionalak dituen jendea. Aldian behin, frustrazioarekin topo egiten duena. Egunerokoari aurre egiteko orduan, ezinean dabilena. Eta ez zait batere arraroa egiten. Nork ez du gorabeherarik izan. Eta zer esango dizuet, garai aldrebese haue-tan, oso normala iruditzen zait.

Adin kontua ere badela esango nuke. Adin batera iristean, konturatzeko zara gauzak ez direla zuk pentsatzen zenuen modukoak. Azken batean, bizitza zoriontsu batekin amesten dugu gazte gaztetatik. Hein handi batean, iradokizun horiekin hazi eta hezi gaituztelako.

Eta bai, ederra da bizitza. Baina harriz beteta dago bidea. Laster ala

berandu, zerbait aldrebestuko zaigu. Haizeak kontra egiteko joera duen moduan. Inoiz espero ez dugunean.

Ustez onenean zeunden unean etorriko da zure oreka zapuztuko duen zerbait. Lantokian, etxean, bikotearekin... Horrelakoetan, ez da erraza asmatzea, eta horrek frustrazioa dakar.

Batzuk besteak baino helduleku gehiago dituzte, eta horiei arinago egiten zaie frustrazioaren zama. Baina badira zamapean geratzen direnak, burua altxatzeko lan handiak dituztenak.

Horrelakoetan, auto-laguntza liburueta jotzen duen jendea ezagutzen dut. Nire harridurarako, bada horrelako liburuetan argi izpirik

topatzen duenik.

Aurreko batean, Osho filosofoaz hitz egin zidan lagun handi batek. Hinduarra, filosofo eta irakasle espiritual hau oso ezaguna omen da. Eminentzia bat kasik. Eta bere liburuak lagungarri egin zaizkiola aipatu zidan. Oso ezaguna dela Osho, eta ia ez ote nuen ezagutzen. Eta nik arrastorik ere ez. Ziurrenik, auto-laguntza usaina duten liburuetatik ihes egin dudalako beti.

Nire lagunaren aldean, bestelako irakurketan murgilduta nabil egunotan: Joxean Artzeren "Heriotzaren ataria dugu bizitza" eta "Bizitza atea dukegu heriotza" liburuetan barrena. Elkar argialetxearekin plazaratuak izan ziren biak, ira-

gan udazkenean.

Kontua da nire lagunarentzako erantzun ederra topatu berri dudala Joxean Artzeren liburuetan. Poema labur baten forman.

*Hain hurbil dugulako zaigu horren urrun ni baino niago dudan, zu baino zuago duzun, dugun argia*

*Hau gugandik hurbil bezain urrun ibilki gu harengatik ilhunbetan izozturik!*

Argia bezala, ez ote dugun urrutiko autoreetan bilatzen, etxeko idazleek gure hizkuntzan eskaintzen dizkiguten erantzunak.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

## Lanean, gutxienez 400 usurbildar batu arte

Erroka betetzetik geroz eta gertuago dira Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldekoak. 400 usurbildar batu nahi dituzte, ekainaren 8an erabakitze eskubidearen alde ospatuko den giza-katerako. Dagoeneko, aurreikusitako 400etatik, 300 lagunengatik atxikimendua batu dute. Baina herritar gehiagoren babes bila dabilta. Iragan ostiralean informazio postua jarri zuten Sutegi atarian eta zenbait usurbildarrek izena eman zuten, milaka euskal herritarrek Durango Iruñearekin eskuz esku lotuko duten ekimenerako.

Oraindik ordea, 400 herritarren muga gainditzeko tartea geratzen da. Gure Esku Dago bilgunekoak atxikimendu gehiago jasotzeko zain dira.



Hainbat herritar, Gure Esku Dago ekimenarekin bat egiten.

Metro bat erosi besterik ez da egin behar, 5 euroren truke.

Eta ekainaren 8an, Uharte-Ara-

kilera joan. Sakanako udalerrir hone-tatik ere igaroko baita erabakitze eskubidearen aldeko giza-katea.

Aginagar, zubietar eta usurbildarrek parte hartzeko tarte bat gordea dute bertan.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: martxoak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 24.

# 385 langabetu otsailean, krisialdia hasi zenetik kopuru altuena

**K**risialdia hasi zenetik ez da halakorik gertatu, langabeziak zoritxarreko marka berri bat hautsi du Usurbilen. 2007az geroztik udalerrri honetan inoizko langabezia tasa altuena erregistratu da, tradizioz hilabete beltza izan ohi den otsailean. Estatuko Enplegu Zerbitzuak 385 langabetu zenbatu ditu Usurbilen. Orain arteko marka altuena hain zuzen, iazko, 2013ko otsailak zuen, 382 langabaturekin.

Urte hasieran baino 8 langabetu gehiago zituen udalerrri honek otsailean. Abenduan 19 langabetu gutxiago zeuden, 366. Bereziki 25-44 urte artekoen artean eman da hazkunde handiena. Baina ohi denez, bada aldatzen ez den ezaugarri bat; emakumezkoak dira orain ere, langabetu gehienak.

Sektorekako datuak bere horretan mantentzen dira. 385 langabetu usurbildarretatik, 250 zerbitzuetakoak ziren otsailean. Kontratazioari dagokionez, hemen bai, aldaketa nabarmena; langabetu kopuruak gorantz egin duen azken hileotan, gorantz egin du baita erregistraturiko kontratu kopuruak. Otsailean ez, joan den hilean beherantz. Urte-urrilean 330 kontratu erregistratu ziren, 285 otsailean. Gehienak aldi baterako, zerbitzuen sektorean. Gizonezko gehiago kontratatu ziren (172), emakumezkoak baino (113).

## Igoera orokorra berriz

Urte hasieran bezala, Buruntzaldeko udalerrri guztietan ere gorako bidean jarraitzen du langabeziatasak. 81 langabetu gehiago zeuden otsailean, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo bailara honetan. Eta Gipuzkoa mailan ere beste hainbeste; pixkanaka, 50.000 langabertura gerturatzeko ari gara. Joan den hilean, urte hasieran baino lanik gabeko 336 gipuzkoar gehiago zeuden.

## Sexuaren eta adinaren arabera

Emakumezkoak: 209.

25 urtetik behera: 10.

25-44 urte artean: 109.

45 urtetik gora: 90.



Otsailean 385 langabetu zeuden Usurbilen.

Gizonezkoak: 176.

25 urtetik behera: 11.

25-44 urte artean: 98.

45 urtetik gora: 67.

## Sektorearen arabera

Nekazaritza: 6.

Industria: 71.

Eraikuntza: 43.

Zerbitzuak: 250.

Aurretik lanik gabe: 15.

## Buruntzaldea

Andoain: 1.125.

Astigarraga: 358.

Hernani: 1.427.

Lasarte-Oria: 1.499.

Urnieta: 401.

Usurbil: 385.

Guztira: 5.195.

## Gipuzkoa

Guztira: 49.152.

## Erregistraturiko lan kontratuak

Guztira: 285.

Aldi baterakoak: 266.

Zerbitzuen sektorean: 171 (industriari 96).

Sexuaren arabera: 172 lan kontratu gizonetarako,

113 emakumezkoentzat.

## Auto enpleguaren inguruko prestakuntza saioa

Eskualdeko udalek eta Lanbideko sustatuta, apirilaren 2an eta 3an, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. "Zure enpresa nola sortu eta kudeatu", hauxe da Gertu Asesores S.L. enpresak doan eman- goren duen ikastaro berri honen izenburua. "Ekintzaileei eta lan merkaturatzeko helburuarekin auto enpleguan aukera ona ikusten dutenei zuzendua dago", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez. Ikastarorak bi egun iraungo ditu, apirilaren 2tik 3ra izango da eta orduetegi honetan eskainiko da; 10:00-13:00 artean eta 16:00-19:00 artean, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Eskualdeko Lanbideko bulegoetan eman daiteke ikastarorako izena, Andoainera deituta, 943 304 221 telefono zenbakira (Nerea Yurrebasoren-gatik galdetu), edo ekinean@andoain.org helbidera idatzita.

## Kataluniatik, Euskal Herrira begira

Halaxe jarriko da Victor Alexandre, Barzelonako idazle eta kazetaria. Martxoaren 26an Usurbila dator, Sutegira, "Kataluniatik independentzia, Euskal Herriko independentziaren gelaurrea", izenburupean, hitzaldia eskaintzera. Nafartarrak taldeak antolatu du ekitaldi hau. Hitzaldia erdaraz izango da. Martxoaren 26an, asteazkenez, 19:00etan hasita Sutegin.



Victor Alexandre idazle eta kazetaria arituko da Sutegin, martxoaren 26an.

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

## Txirrindularitza

**L**arunbat arratsaldean, gazteen arteko bizikleta lehiaketa ikusteko aukera izan nuen Usurbilen. Gehienetan mutilak izaten dira, baina tartean neskek ere baziren. Herrian harrera handia izan du betidanik txirrindularitzak. Ramon Unanuek (joan berria dugu) entrenatzaile bezala lan asko egin zuen, orain pozez begira egongo da, berak hainbeste maite eta landu zuen kirol jarduerak jarraipena baduela ikusita. Bost denboraldi eginak genituen elkarrekin ia astero batera edo bestera, lasterketak bideetan edo baita ziklo-krossa ere, hainbat herri ezagutzeko aukera ederra izaten genuen. Gainera Usurbilgo taldea oso ondo moldatzen zen eta poz handiak eman zituzten gure gazteek. Lerro hautetatik animu handia antolatuta eta gazteen heziketan lan egiten duten guztiak.

Argazkian dituzue irabazleak, Zarauzko taldeko Aritz Erasun eta Adrian Sorrelus. Zorionak parte hartu duten guztiak. Aupa gazteak!



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

## Kortsikatik Euskal Herrira

**O**rain lau bat urte izan nuen Kortsikako musika taldea ezagutzeko aukera. Orduz geroztik ez dut L'Arcusgiren arrastoa galdu, eta orain arte bezala, ostiralean, Sutegin eskainitako emanaldiarekin izugarri gozatu nuen. Iluntzeko 19:30ak aldera sartu nintzen kultur-etxe-ko auditorioan; bai, aitortu beharra daukat, betiko martxan, denboraz juxtu xamar ibili nintzela oraingoan ere. Ikus-entzulez beteriko gelan eserleku hutsa topatu eta musikarien emanaldia entzuteko prest. Minutu batzuk pasa ostean, argiak itzali eta isiltasuna nagusitu zen auditorioan. Orduan, txalo zaparrada batek lagunduta atera ziren musikari eta abeslariak agertokira eta hasi ziren kantuan. Eskaini zituzten Kortsikar hizkuntzan abesti ugari; "Cresce speranza", "So Elli", "Resistenza", besteak beste, baita zenbait euskal abesti ere; "Egoak" eta "Euskalduna naiz". Konturazterako, auditorioan bildu ginen guztiak "beste bat!, beste bat!" oihuka ari ginen. Ordu t'erdiz gozatu ederra! Ea laster taldearen beste emanaldi bat ikusteko aukera suertatzen den berriro ere; bitartean, jarraituko dut euren doinuak kantatzen (argazkia: Zalao Arnaiz).



KALEZAR

INMA BALDA

## Agur beroa, Udaberri!

**N**orbait antsiaz espero baldin badugu, hori, Udaberria da. Baina, dagoeneko ate joka datorkigu. Aurreko egunetan bere intentzioak erakutsi dizkigu eta gurean, itxaropen handiak piztu. Zein asmorekin ote dator udaberria? Lana ez zaio faltako: zelaiak belardiz josi, zuhaitzak lorez jantzi, kimu berriak aterarazi, eguzki orduak zabaldu, tenperaturak goxatu, gure odolak berotu, animoak berpiztu, bizipoza eskura jarri, ...

Neguak gogor jo digu, haizea eta euria lagun zituela. Oraindik ondo gogoa dugu otsailaren bian jasandako enbata. "Kandelaria hotz, negua motz. Kandelaria bero, negua gero." Ez da, ez, gaur goizeko kontua hori. Aurrerantzean ikusiko dugu nola betetzen den gure zaharrek utzitako ikasgaia.

Bitartean, Ama Lurrak eskaintzen digun oparia hartu eta disfrutatuta. Hori da ditxa! Eta naturaren esnatzearekin batera gure auzoan ere martxan jarriak gara udako solstizioari ongi etorria emateko ospatuko ditugun jaiak antolatzen. Luze geratzen dira oraingoz Sanjuanak, baina, jaiak ez dira gauetik egunera prestatzen eta hori ongi dakite jai batzordekoek. Horregatik egin dute deialdia eta, txiki, gazte eta heldu, guztiok gaude gonbidatu jai prestaketetan eskua botatzeko. Inplikazio handia edo txikia, denetarik behar da. Bilerak auzoko elkartean. Azaldu zaitetz, auzotar!



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Estankoa

**M**artxoko egun eguzkitsuek urtero biziberritu ohi dute Zubietako asteen zeharreko "kale" bizitza. Neguko egun goibelean zimeldutako gorputzak berpizten ditu eguzkiak eta plazara aterarazten. Eguraldiak eragina du, bai, plaza inguruan pilotzen den jende kopuruarengan. Haur parkeak hor daude, haurren jomuga; frontoiko eta plazako paretek ere pilotariak erakartzen dituzte; eta, nola ez, hor dago Alamandegiko "estankoa", zentro neuralgikoa. Hor egon da aspaldiko urteetan eta hor dirau. Baina luze gabe itxiko dutelako susmoa zabaldu da.

Alamandegiko taberna da, estankoa da, jatetxea da... baina dagoen lekuan egonda eta izan dena izan eta gero, Zubietarentzako hori baino askoz gehiago dela esatearekin ez nuke ezer berriak azalaraziko. Ixten bada, ba, tira, moldatuko ginateteke, plazan bertan ez bada ere urrutira joan gabe beste taberna batzuk ere baditugu baina ezin uka Zubietako "kale" bizitzak atzerapausoa emango lukeenik.

Ez dakit zein aukera dagoen eta zein baldintza bete behar den Alamandegiko taberna edo elkarte gisa irekita jarrai dezan baina iruditzen zait zubietar askok eskertuko genukeela gai horretan erantzukizunik dutenek estankoa irekita mantentzeko ahalegin sendoa egitea.

# Blokeo egoera gainditzeko lanean

**A**zken iheslaria etxeratu bitartean, “hemen ez da konponbiderik. Iheslarien arazoari heldu behar zaio. Iheslariekin hitz egin behar da”, eskaera argia egin zuen bideo-konferentziaz, Usurbildik kanpo hamarkadak daramatzen Xabier Miguel Ezkerra herritarrak, iragan martxoaren 6an Aitzaga Elkarteak Sutegin antolatu zuen hitzaldian.

Usurbildarraren esanetan, kolektiboak bizi duen errealitate latzari aterabidea eman beharra dago, bizi dugun gatazka konpondu nahi bada behintzat. 500 kide dituen euskal iheslari politikoen kolektiboaren erradiografia egin zuen. Erradiografia latza. 100 baino ez dira bizi Euskal Herrian. “Gehienak kanpoan, egoera latzetan, kontinente ezberdinetan, prekaritate osoan batzuk”, azaldu zenez. Iheslari batzuen bizimodu gogorra da bereziki, eta konponbidea ahalik eta lasterren behar du. “Ezin da luzatu batzuen egoera, itsasoz bestalde daude, mediku azterketak ezin egin... Existitzen ez den egoera juridikoan daude”, azaldu zuen Xabier MIGUELEK.

Lan zailena izango den



Martxoaren 6an egin zen mahaingurua Sutegin.

## IHESLARIEN KOLEKTIBOIA

**Gehienak kanpoan, egoera latzetan, kontinente ezberdinetan bizi dira. “Ezin da luzatu batzuen egoera. Existitzen ez den egoera juridikoan daude”**

arren, haien egoera konpondu beharra dagoela gogorazizien Sutegira hurbildutakoiei. Euren aldetik, “etxeko eta kanpoko” eragileei gaia mahai gainean jartzen ari direla berri eman zuen. Gogoan izan, iazko ekainean jendaurrean aurkeztu zuen euskal iheslarien kolektiboak, gatazka konpon-

tzeari begira eginiko ekarpena. Ez ziren bakarrak izan. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere, 2013a agurtzear genuela bere ekarpena ezagutzera eman baitzuten.

Bi planteamenduon dimentsio politikoa aztertzeke antolatu zuen hain zuzen Aitzaga Elkarteak, martxoaren 6ko Sutegiko hitzaldia. Xabier Miguel Ezkerrarekin batera, Amaia Izko (abokatua eta Sortuko bozeramailea) eta Juan Karlos Ioldi (preso ohia eta Harrera taldeko kidea) gonbidatu zituzten kultur etxera.

## INDARRA EMATEKO

Euskal presoek eginiko ekarpenaz bi ezaugarri nabarmendu

zituena Ioldik; batetik, aldeba-kartasunarena. Bestetik, euskal presoek kolektiboak plazaraturikoa, Euskal Herrian zabalik den prozesuari atxiki, elikatu eta “indarra emateko” erabaki gisa definitu zuen. Gardentasunez eta zintotasunez hartutako erabakia, berebiziko garrantzia duena, bere esanetan. Taldean hartua, “norbanakoen gaintik jartzen dute, herriaren etorkizuna”.

## SALBUESPEN LEGEDIA DESEGIN BEHARRA

Urgentea den sakabanaketaren gaiari heltzen diote ekarpenok, Izkoren aburuz. Irtenbidean aurrera joateko nahia adierazten dute, atzera egin nahi eta inposizioa betikotu nahi dutenak egon badaudela jakin arren. Baina sakabanaketarekin amaitu nahi bada, egun indarrean den salbuespen lege-dia desegin beharko dela aipatzen zuen. Espainiar estatuak egun duen gerra, mendeku edo oztoporako diseinaturiko lege-dia desmuntatu eta beste lege-di bat sortu beharko da abokatuaren esanetan, nazioarteko beste hainbat kasuetan egin den moduan, “gatazka konpontzeari begira, irtenbide prozesuan aurrera egiteko”.

## Desberdin pentsatzen dutenak konbentzitu beharra

**K**onponbidean aurrera egiteko, indarrak metatzen joateko garaia da hau. Eragile politikoen parte hartzetik haratago, loldiren esanetan, nazioarteko indarra eta jendartearen inplikazioa ezinbestekoak izango dira.

Herritarrek prozesuan aurrera egiteko nola aktibatu galdetzen zieten hiru hizlariari. Sormena landuz, edota “ilusionatuz” Xabier Miguel Ezkerraren esanetan. “Etorkizuna guk eraikitzea posible da, gaur

independentzia jorrazteko atarian gaude”, gaineratzen zuen. Prozesuan aurrera egiteko giltzarrietako bat eman zuen Aitzaga Elkarteak antolaturiko hitzaldian; “Gu bezala pentsatzen ez dutenak dira konbentzitu behar ditugunak”. Ipar Euskal Herrian azken hamarkadan abertzale ez direnak prozesuaz sinestea lortu dutela zioen. “Nola ez da izango posible hor?” galdetzen zien bideo-konferentziaz, Sutegin bildutakoiei.



**Epaiazen zain.** Amaitu da Ezker Abertzaleko ia 40 lagun eta ehunetik gora herriko taberna edo elkarteren aurkako epaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Ondoko irudi honekin Usurbilen. Elkarretaratze bidez, auziperatuetako bati, Aitzaga Elkarteari babesa adieraziz. Epaiazen zain orain.

# NOAUA!rekin hitzordu bikoitza

OSTEGUN HONETAN LABURBIRA SUTEGIN, ETA ASTELEHENEAN BATZAR NAGUSIA POTXOENEAN

**L**ehenik Laburbira, euskal film laburren emanaldia antolatatu du NOAUA! Kultur Elkartek, ostegun arratsalde honetarako, 19:00etan Sutegiko auditorioan. Euskal Herrian ekoiztako zazpi lan proiektatuko ditugu: "Abuztua", "Aio", "Euskaldun berriaren esketxa", "Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa", "Marylin", "Plaza bakarra" eta "Sormenaren bide ezkutua". Emanaldirako sarrra doan.

Eta proiektzioaren ostean solasaldia, "Abuztua" film laburreko zuzendariarekin. Sutegiko auditoriora gonbidatu dugu Pello Gutierrez donostiarrak. Bere "Abuztua" film laburrak nazioarte mailako bi sari entzutetsu jaso zituen iaz; Palermo Sorsi Corti Zinemaldiko Fikziozko Film Labur Onenaren saria eta Film Laburren Masterra Lublineko (Polonia) Golden Anteaters Zinemaldian. Nazioarteko beste hainbat jaialdietan ere proiektatu dute "Abuztua". Etxean ere, Lekeitioko Euskal Zinearen jaialdian, "Zilarrezko antzara" saria eman zioten.

Julen da film labur honetako protagonista. Bere kabuz mugitu ezin duen amona zaintzen geratzen da uda batean. Hor abiatzen da "Abuztua".

## LABURBIRA 2014

■ Filmak: "Abuztua", "Aio", "Euskaldun berriaren eske-



"Abuztua" ikus ahal izango dugu ostegunean. Nazioartean hainbat sari jaso dituen film laburra.

## NOAUA!KO BATZARRA

**"Bazkideen urteko ohiko Batzar Nagusia datorren astelehenean izango da, martxoak 24, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Potxoenean"**

txa", "Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa", "Marylin", "Plaza bakarra" eta "Sormenaren bide ezkutua"

- Martxoak 20 osteguna,
- Ordua: 19:00etan.
- Sutegiko auditorioan.
- Sarrera doan.
- Iraupena: 75 minutu.
- Antolatzailea: NOAUA!

## AURTEN BATZARRA, POTXOENEAN

Laburbiraren ostean, bazkideen batzar nagusia antolatatu du NOAUA! Kultur Elkartek, martxoaren 24rako, hau da, datorren astelehenerako Potxoenean.

Deialdi bikoitza egin du kultur elkartek; lehena, iluntzeko 19:00etarako, bigarrena 19:30etarako. Honako gai zerrenda jorratuko da urteko batzar nagusian;

- 2013ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2014ko egitasmoak eta aurrekontuak.
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- Galdera erantzunak.

## 2013KO ASTEKARIEN KOADERNAZIOA

Iazko NOAUA! guztiak bildu eta koadernatzeko aukera duzue jada. Tapa eta aurkibidea NOAUA!ko egoitzan eskuratu ahalko dituzue. Bazkide zaretenok doan. Gainerakoek, tapa 3 eurotan, eta aurkibidea 1,20 euroren truke. Bilduma osatuta, Lizardi edo Laurok liburu dendatara eraman koadernatzera. Koadernazioa, NOAUA!ko bazkide izan edo ez, berdindu beharko da.

- Bazkideentzat doan. Gainerakoentzat, tapa 3 euro, aurkibidea 1,20 euro.
- Koadernaketa, Lizardi eta Laurok.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021



# Mintzalagun berrien bila

**E**uskalduna izan eta euskara ikasten ari dena lagundu nahi baduzu, edo euskara ikasten egon eta euskara praktikatu nahi izanez gero, batzuentzat zein besteentzat bada topagunerik Usurbilen; Mintzalagun egitasmoa. Urte osoan zehar zabalik dago, Usurbilgo Udalak, Etumeta-AEK euskaltegiak eta NOAUA! Kultur Elkarteak sustaturiko ekimenean apuntatzeko epea.

Parte hartzeko gonbita bikoitza beraz herritarrei. "Euskara ikasten ari bazara baina hitz egiteko lotsatzen bazara, mintzapraktika taldeetan parte hartu. Gurekin ondo pasatzeaz gain, zure euskara maila



Duela bi urteko Mintzalagun taldea, irteera batean.

hobetuko duzu. Eta den-dena dohainik!", hala da. Euskara

ikasten ari direnek "euskaldun zaharren" laguntza beharrean

dira, hemen beraz, bigarren gonbita: "Euskalduna bazara eta ikasten ari denari laguntzeko prest bazaude, astean ordu bete eman dezakezu mintzapraktika egin nahi duten lagunekin, solasean eta giro onean".

## ANIMATZEN BAZARA...

Animatzen zaretenok, deitu euskaltegira, 607 609 379 telefono zenbakira, idatzi usurbil@ae.org helbidera edota Etumetara gerturatu; Kale Nagusia, 45 behea helbidera. Eta eman izena. Mintzalagunen berri jaso ahal duzue baita, Facebook-en; "Mintzalagunak gara" orrialdean. Baita web gune honetan ere:

[mintzalagun.blogspot.com](http://mintzalagun.blogspot.com)

**NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA**  
MARTXOAK 24, ASTELEHENA - POTXOENEAN

1. deialdia 19.00etan / 2. deialdia 19.30etan

**GAI-ZERRENDA:**

- 1) 2013ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2014ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

**noaua**

**GOLDWELL ELUMEN**

*ileapaindegia*

**mistoa**

**Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

# The Hastelehen's musika taldea,

Asteburua atzean utzi eta aste berri bat estreinatzen dugun bakoitzean, ajea, nekea eta sarri nagikeriak jota egon ohi gara. Ia denak, baten batzuk izan ezik. Badira eta Usurbilen, aldapa gorarik gabeko astelehenik izaten duenik ere. Ez badiguzue sinesten, gerturatu astelehen buruzuri batean Zumarte Musika Eskolako beheko solairura. Hantxe aurkituko dituzue The Hastelehen's musika taldekoak. Alai asko, ezagunak diren hainbat abestiren bertsio berriak sortzen, edota agendan apuntatuak dituzten emanaldiak prestatzen.

Martxoaren 29an, frontoian ospatuko den Soinurbileko pop-rock taldeen kontzertuan parte hartzekoak dira. Baina jaietan, beste herrietatik deitu izan dietenean, hantxe joan dira gustura asko, The Hastelehen's taldekoak. Diotenez, ohitura "txar" bat baitute, jasotako proposamenei baietz esatekoa. Eta hortik aurrera, kameleoien antzera, eskaintzen dieten horretara ederki asko moldatzen ikasi dute.

**NOAUA! Musika Eskola da zuen elkarren arteko lotura?**  
**The Hastelehen's:** Zumarte Musika Eskolatik musika instrumenturen bat ikasten ari ginenon artean, helduen taldea osatzeko deialdia egin zuten. Duela lau bat urte izan zen. Bik txistua jotzen genuen, beste batek pianoa... Talde bat bildu zen. Lehen urtean, abesti bat lantzen genuen hiru hileroko. Ordutik taldeak aldaketak izan ditu, batzuk uzten eta kide berriak sartzen joan gara.

**Nola akoplatu zenituzten musika instrumentuak eta taldekideak?**  
 Hasieran, baxurik gabe talde



**"Hasieran folk kutsua zuen. Orain abeslariarekin, pop-rock doinuetara pasa da taldea"**

Astelehenero entseatzan dute Zumarten, hortik taldearen izenburua.

batek soinu pobreagoa du. Batek ezagutzen zuen baxua jotzen zuena, gitarra jolea... Hasieran folk talde bat bezala sortu zen, txirula eta guzti. Orain abeslariarekin, pixkanaka taldea moldatzen joan da, folketik pop-rock doinuetara pasa da taldea.

**Astelehenero egiten die erreferentzia zuen taldeak, ezta?**  
 Izenarena beranduago etorri zen. Duela bi urte, lehenengo kontzertua eskaintzea proposatu zigutenean. Izena jarri behar genuen derrigorrean. Hasieran Zumarteko Helduen Taldea ginen. Astelehenetan

entseatzan genuenez, The Hastelehen's izena jarri genion taldeari.

**Abestien lanketari dagokionez, hiru hileroko martxa duzue?**

Hasieran asko kosta zitzaigun, musika instrumentuekin hasi berriak ginen. Nahasketa arraro samarra zen; bateria eta tresna elektronikoak batetik, txistua bestetik. Baina halere harrিতa geratu ginen, gehienbat kanta bat atera genuen. Txistu joleak proposatu zuen Shrek filmeko abestia ateratzea. Berezi samarra izan zen eta hor aurrerapauso bat eman genuen, taldearentzat

aldaketa bat suposatu zuen. Musika instrumentu asko garenaz, ezin dugu jo talde originalak bezala. Joxean Anduagak moldatzen dizkigu abestiak instrumentu guztientzat. Horregatik, gure kutsu desberdina ematen diegu abesti tradizionalari.

**Kanta hura inflexio puntua izan zen beraz?**

Noizbehinka jotzen dugu. Aurten beste aldaketa bat izan dugu. Apirilaren 12ko Dantza Egunean parte hartzera goaz. Gure ohiko jardunetik desbideratu gara. Baina berriz ere helduko diogu gureari. Denerata moldatzen gara.

## "Oso gustura jo genuen Santixabeletako bertsio gauan"

**NOAUA! Atxegaldeko festekin ere lotura berezia duzue?**

**The Hastelehen's.** Jaietarako moldatu behar izan genituen kantak, kanta herrikoiak; Lau Teilatu, Eperrak, betiko abestiak, jendeak abes zitzan. Apirilaren 12ko Dantza Egunerako herri-tarrek dantza egiteko beste abesti batzuk joko ditugu. Soinurbilerako rock ukitu handiagorekin agertuko

gara. Estilo definiturik ez dugunez, emanaldi bakoitzari dagokionera egokitzen saiatzen gara. Santixabeletako bertsio gauan jo genuen, Garinoainen, Errenterian, Lezon... Emanaldia eskaintzeko proposatzen digutenei baiezkoa esaten diegu, ohitura txar hori dugu.

**Zein da zuen talde izaerari ongien**

**egokitzen zaion formatua?**

Oso gustura jo genuen adibidez, ia-zko Santixabeletako bertsio gauan. Kanta gutxi izan ziren, talde asko izan zirelako. Zorionez talde asko baitaude. Askatasuna plazan gustura aritu ginen. Kontzertu luzeak egin gabe, gure ukitua eman eta beste batzuei lekukoa pasatzea gustuko dugu.

# asteari erritmo bizian ekiteko

**NOAUA! Soinurbilen ere beste zortzi talderekin parte hartuko duzue?**

Soinurbilen ere bost kanta izango dira, bertsio gau antzeko bat egingo da. Talde asko, bai Zumartekoak bai musika eskolatik kanpokoak. Txandakatzuz joango dira Zumarteko taldeak eta herrikoak. Gazte jendea oso indartsu dator. Zumarten eta Zumartetik kanpo indar piloa ikusten da. Musika Eskolan eta hemendik kanpo jendea gogoz elkartu eta taldea osatu dute. Adin desberdinetako jendea dago. Soinurbilen, denak jaialdi berdinean parte hartzea oso pozgarria da. Gazteak indartsu datoz, baina helduen artean ere bada musika-rekin lotura bat mantentzeko joera. Helduak baina senti-mendu gaztearekin.

**Musika eskolako ikasle batek gerora musika munduan jarraitu dezakeela argi erakusten duen adibidea zarete.**

Lehen, klasera etorri, musika instrumentuak ikasi eta etxean instrumentuak bakarrik jo behar izaten genituen. Jendea



Motibagarria da eurentzat zuzeneko kontzertuak eskaintzea.

## THE HASTELEHEN ´S

**“Soinurbilen parte hartzea oso pozgarria da. Gazteak indartsu datoz, baina helduen artean ere bada musikarekin lotura bat mantentzeko joera”**

uzten doa. Horren aurrean, duela hiru bat urte musika taldeak sortzeko mugimendu bat sortu zen Zumarte Musika Eskolaren aldetik. Hortik joan dira osatzen talde desberdinak. The Hastelehen ´s ere horrela

osatu zen. Motibagarria da guretzat hainbeste kontzertu ematea. Ez da ohikoa, guk dugun mailarekin. Urtero jo dugu jaietan, ikasturte bukarako emanaldietan, gonbidatu gaituzte Lezora jaialdi batera, joan gara Nafarroara... Emanaldiek taldea bizirik mantentzen dute, jendeak taldean segitzea motibatzen du.

**Herrian sortu diren taldeen isla izango da X. Soinurbil?**

Aurten Soinurbil desberdin bat egin nahi izan da. Orain arte kanpoko jendea ekartzen zen, baina aurten herriko tal-

deei garrantzia berezia eman nahi izan zaie. Besteak beste, kalejira bat antolatu da Zumartetik, herriko beste talde batzuekin elkarlanean. Bertsio rock-pop gaua ere ospatuko da. Hitzordu honetarako zortzi talde inplikatu gara, zortziak herrikoak. Polita izango da aurtengo Soinurbil.

**Zuek ere prest?**

Azken pintzeladak ematen. Lotsarik ez dugunez, okerrago edo hobeto, emanaldia atera, aterako da. Okerxeago ateratzen bada, Atak txiste bat kontatu eta dena konpontzen du. Hau hasiera baino ez da, 50 urtez jarraitu behar dugu jo eta su.

## The Hastelehen ´s taldeko kideak

Alex Romero abeslaria, Adolfo Romero “Ata” txirula, Jon Aspiazu baxua, Gaizka Lasa gitarra, Agurne Alkorta flauta trabesera, Iñaki Zugasti baterria, Aintzane Aizpurua pianoa, Ainhoa Pikabea eskusoinua, Joxan Anduaga managerlaguntzailea.

## Asteartean abiatuko da X. Soinurbil Musika Astea

### Martxoak 25, asteartea

■ 18:00 Porru Dj-a: haur nahiz gurasoentzako erromeria frontoian, Kili-klon taldearen eskutik. Abestiak kantatu eta dantza egiteko koreografiak ikasteko aukera.

### Martxoak 26, asteazkena

■ 18:00 / 19:00 Organoa ezagutzeko aukera Salvatore Elizan, Organoaren Lagunak taldeko kide Joan Luis Atxegaren eskutik. Sarrera doan.

### Martxoak 27, osteguna

■ 18:30 Zumarte eta Tobera, Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako ikasleak biltzen dituen musika eskolaren emanaldia, Sutegin. Sarrera doan.

### Zumarte Musika Eskolatik:

- Trikitixa eta pandero taldea: “Ikusi mendizaleak” (Herrikoia).
- Saxofoi taldea: “The woodcutter” (Ezezaguna).
- Talde instrumentala: “The flintstones” (Hanna, Barbera), “Ragtime fiddles” (Bruce Chase).
- Zumarte Gazte Abesbatza: “Hiri hartan izan zen” (Mikel Markez).
- Tobera, Musika eta Dantza Eskolako egitaraua: “Europa” (Charpentier), “Irish Washerwomen”, “Fiesta”, “Souletino”, “Lassus Trombone”, “John Brown”, “El Campesino Alegre” (Schumann), “Xarmangarria zira” (herri-doinua), “Uso Txuria” (herri-doinua), “Banako” (euskal

dantza tradizionala), “Neska Zaharrrak” (arin-arina), “Askatasun egarritz” (Lin Ton Taun).

### Martxoak 28, ostirala

■ 19:00 Kalejira frontoitik abiatuta. Usurbilgo Kantu Taldea, Zumarte Musika Eskolako Abesbatzak, Trikitilari Taldeak eta Txistulari Taldeak, Hurbilago, Usurbilgo merkatari eta ostalarien elkarteak. Oharra: kalejira Tipi-Tapan parte hartzen duten tabernetatik igaroko da. Hau da, Txiriboga, Aitzaga, Xarma, Txirristra, Bordatxo, Artzabal eta Txapel-dun tabernetatik. Guneotan, 19:00-21:00 artean edariarekin pintxoak doan. Eta gainera Tipi-Tapako 150 euroko erosketa balearen zozketarako zigituak lortzeko aukera.

### Martxoak 29, larunbata

- 22:00 Usurbilgo pop-rock taldeen kontzertua frontoian. Sarrera doan.
- Ixakson-ak, Zumarteko taldea.
- Tapiwan, Zumarteko taldea.
- 3P4, herriko taldea.
- Tapimax, Zumarteko taldea.
- Nesk-Quik, Zumarteko taldea.
- Juanantzoneko okupak, herriko taldea.
- The Hastelehen ´s, Zumarteko taldea.
- Zappa, Zumarteko taldea.
- Arto2xar, herriko taldea.
- Ganbarakada, Zumarteko taldea.

### Martxoak 30, igandea

Andoaingo musika banda eta abesbatza Usurbilen. 11:30 Kalejira, Zumarte Musika Eskolatik abiatuta. 12:30 Emanaldia frontoian.

## Arrakasta handia izan du Soinurbilen harira Zumartekoek egin duten lipdub-ak

Soinurbil Musika Astea hamargarren edizioa iritsi da. Eta urteurrena ospatzeko, logotipo berria aukeratu eta lipdub bat grabatu dute. Bideoan Zumarte Musika Eskolako ikasle, guraso zein lagunek hartu dute parte. En Tol Sarmiento taldearen abesti batekin egin dute lipdub-a. Interneten ipini eta lehen egunean 600dik gora bisita izan zituen. Dagoeneko 1.200era iritsi da lipdub-a. Arrakastatu hasi da beraz, Soinurbil Musika Astea.



QR kode honekin, zure eskuko telefonoan ikus dezakezu lipdub-a.

## Kilometroak 2015erako logotipo eta lelo bila

Eta horretarako herritarren laguntza jaso nahi dute. Martxoaren 31ra arteko tartea dago, hurrengo urtean Usurbilen ospatuko den ikastolen aldeko jaialdirako lelo eta logotipoak sortu eta Udarregi Ikastolara bidaltzeko. Zuen proposamenak idazkaritzan utzi ditzakezue edota helbide honetara bidali: [usurbilkilometroak@udarregi.com](mailto:usurbilkilometroak@udarregi.com)

“Animatu zaitezte eta parte hartu ideien zaparradan! Ikastolak plazer handiz jasoko ditu!”, berri eman dute, 2015. urteko Kilometroak antolatzen hasiak diren Udarregi Ikastolako kideek. Gogoan izan, bai leloa eta baita logoa ere, Usurbilen ospatuko den euskararen aldeko jaialdiko ikur bilakatuko direla. Euskal Herri osoan zabalduko dira. Bururatzen zaizkizuen ideiak lantzerakoan, honakoa aintzakotzat hartzea eskatzen dute Udarregitik: “Bi ideia nagusiren inguruan sortu nahi ditugu (leloa eta logoa); euskara! eta herriarekin elkarla-



2014an Orion ospatuko da Kilometroak jai eta 2015ean Usurbilen.

### BI IDEIEN BUELTRAN

**“Bi ideia nagusiren inguruan sortu nahi ditugu leloa eta logoa; ‘euskara’ eta herriarekin ‘elkarlanean’, ‘auzolanean”**

nean, auzolanean!”

### AUZOLANERAKO DEIA

2014-2015 ikasturtean Haur Hezkuntzako espazioen antolaketan berri bat egin eta gela ho-

rietan egitura berri batzuk jartzeko laguntza beharrezko dira Udarregi Ikastolan. Zurgin, diseinatzaile, brikolaje zale eta abarren bila dabilta ikastolan. Horregatik luzatzen diete herritarrei, auzolanearako gonbita. Laguntzeko prest dagoen orok, eman dezala izena ikastolako idazkaritzan. Udarregitik berri eman dutenez, auzolan esperientzia honetan parte hartuko dutenak “ez dira bakarrik arituko, izan ere, Mondragon Unibertsitateko aholkularien gidaritzan eta aholkularitzan, ondoan izango dugu”.

### Euskal Udalekuetan izena emateko epea ireki da

Udan euskaraz bizi nahi duenak, aukeran, Euskal Udalekuetan eman dezake izena. Abaigar, Bernedo edo Goñin egingo diren egonaldietan. “Euskal Udalekuetan euskaraz hutsean bizi gara. Beraz, ez ezazue euskaraz ez dakien ume edo gazterik bidali”, dio oharrak. Izen-ematea irekita dago, 18:00-20:00 bitartean, 943 75 14 07 telefono zenbakian. Edo emailez posta [@euskaludalekuak.org](mailto:@euskaludalekuak.org) helbidera idatziz.

### Aste Santuan, txokoak Aginagan

Egun hauetan egongo da martxan Aste Santuko txokoa Aginagan: apirilaren 14, 16, 17, 22, 23, 24 eta 25ean.

**Ordutegia:** Sarrera: 9:00-10:00  
Irteera: 13:00

**Prezioa:** 25 euro (San Praixku elkarteontzat 15 euro).

**Izena ematea:** 637332402 (Naia-ra). Apirilaren 3a baino lehen.

### Umea besoetan erosoago eramateko ikastaroa

Seme alabak erosoago eramateko modurik ezagutu nahi baduzu, akaso interesekoa izango zaizu Baratze dendan antolatu duen tailerra. Fularrak eta bandolerak egoki nola erabili irakatsiko da. “Ume-eramailerik baduzue, ekarri eta bakoitzaren ezaugarriez hitz egingo dugu”, dio dendatik jaso dugun oharrak. Martxoaren 29an larunbata, Baratze denda ekologikoan, 11:00etan hasita.



Tailerra Baratze dendan egingo da, martxoaren 29an.

## II. Dantza Eguna, apirilaren 12an

TALDEAREN GORABEHERAK BATZEN DITUEN LIBURUA PLAZARATUKO DUTE LASTER BATEAN

**U**surbilgo Dantza Taldekoak hainbat ekimen bideratzen ari dira datorren hilabeterako. Hasteko, iazko esperientzia errepikatuzera doaz; II. Dantza Eguna antolatuzeko lanetan murgilduak dira. Apirilaren 12an ospatuko da, larunbatez, herrian dantzaren inguruan diharduten taldeen topaleku bihurtu ohi den ospakizun eguna. Egitaraua guztiz zehaztu gabe duten arren, iazko antzeko formatua izango du bigarren edizio honek ere.

Aurreikusitako epeak betetzen badira gainera, datorren hilabetearen plazaratuko dute, Usurbilgo Dantza Taldearen historia jasoko duen liburua. Gogoan izan, Dantza Eguna-aren estreinako edizioa, argitalpen honen abiapuntua izan zela. Dantza Taldearen historia jasotzen zuen erakusketa bat antolatu zuten iaz. Erakusketa hartarako, irudi, bideo, jantzi, edota bestelako materialak uzteko deialdia egin zuten antolatzaileek. Bil dutako materiala, idazten ari diren libururako baliatu asmo zuten.

### LIBURUA, LASTER KALEAN

Esandakoa, azken orduko al daketarik ez bada, datorren hilabetearen esku artean izango dugu argitalpena, Usurbilgo Dantza Taldearen ibilbidearen



Eva Lizarragak eta Aitziber Elortzak egin dute Dantza Taldearen logo berria.

### IRTEERA

**"Apirilaren 27an Urdiñarben emango dute maskarada Zalgize eta Iruri herrietako gazteek, eta bertara joateko egunpasa antolatu nahi dugu"**

gorabeherak bilduko dituen liburua.

### IRUDI BERRIA IZANGO DU DANTZA TALDEAK

Jada prest dutena, Dantza Taldearen irudi berria da. Logo berria du Dantza Taldeak, "garai berrietara egokitzeko garaia bagenuen eta!", bilgutetik diotenez. Aitziber Elor-

tzak eta Eva Lizarragak diseinatu dute, aurrerantzean, Dantza Taldearen irudia izango dena.

Hau guztia gutxi ez eta apirilaren 12ko Dantza Eguna igaro osterako azken ekimen bat ere prestatzekotan dira: hilabete amaieran, Zuberoako maskarada ikustera joateko autobusa antolatu asmo dute Usurbilen.

### URDIÑARBERA EGUNPASA

"Apirilaren 27an Urdiñarben emango dute maskarada Zalgize eta Iruri herrietako gazteek, eta bertara joateko egunpasa antolatu nahi dugu", Dantza Taldeak adierazi dutenez. Aurrerago, ekimen guztion zehaztasun gehiagoren berri.

### Saharako haurrak, bake gosez

7-12 urte arteko haur saharar bat etxean hartu nahi duenak, Gizarte Zerbitzuetara jo eta izena eman dezake jada, apirilaren 8ra arte. Egoitza berean emango da, "Oporrak bakean" izeneko egitasmo honi buruzko behar beste informazio: 943 377 110. Emailaz: gizartelangilea3@usurbil.net

Bizi duten egoera gatazkatsutik urrundu eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematea da helburua, "eta bide batez, desertuan udako bi hilabete horietan (uztaila eta abuztua) pairatzen den temperatura altuetatik babestea". Usurbilgo Udalak bi urte daramatza egitasmo honekin bat egiten.

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

Patri Jatetxea  
K/nagusia 14. © 943 362 725

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
errazkinsl@euskalnet.net  
Oztaran auzoa 33, URNIETA



**Iraileko lehen asteburuan hasi eta irailaren 27ko asteburuan amaituko da 2014ko Usurbil Cup txapelketa.**

**E**ta ez ekainean, orain arte bezala. Txapelketa ikasleen ikasturte amaierarekin egokitzeak edota herrian urteko seigarren hilabetearen dauden ekimen mordoak bultzatu du Usurbil FT-ko zuzendaritza, ehunka haur eta guraso mugiarazten dituen kirol ekimena atzeratzera. Eurentzat gaztetxoak txapelketako erdigune direla argi izanik, aldaketa onerako izango delakoan daude. Futbol klubak hartutako erabakiak, Hezkuntza Mahaia- ren babesa du.

Honenbestez, Usurbil FT-koen aurreikuspenen arabera, iraileko lehen asteburuan hasi eta iraila amaieran, 27-28 inguruan betiko jaialdi ukituko sari banaketarekin bukatuko da Usurbil Cup 2014. Tartean hiru asteburu egongo dira, talde parte hartzaileen arteko neurketak jokatzeko. Asteburuak eta baita aste egunak ere. Usurbil Cup irailean jokatzeak dakarren abantaila bat, ikasleek iraileko arratsaldeak libre dituztela baita, ez dute klaserik. Eta asteburuetan ere asti gehiago, urrira arte ez baita abiatzen eskola kiroleko denboraldia. Egu-tegi aldaketak antolatzaileei lanak erraztuko dizkie eta ikasleak ere, udako oporraldiaren eraginez, indarberrituta eta lasaiago egongo dira.

#### **Uda ostean, lasaiago**

Azken urteotan, guraso eta irakasleengandik jasotako kezka edo proposamenen harira bideratu dute aldaketa hau Usurbil FT-koek. Euren esanetan, ekaineko ebaluazioa eta ikasturte amaieraren harira, ikasleak aztoratu samar sumatzen dituztela eta, data aldaketa eskatzen zuten. Antolatzaileek ere buruhausteak izan ohi dituzte, ekainean partiden ordutegiak finkatzerakoan. Ikasleen denbora faltagatik, edota Usurbil Cup Santixabelen aurretik amaitu beharra zutelako.

Iraila, bai antolatzaile, guraso eta jokalarientzat hilabete lasaiagoa izango delakoan daude. Kultur

agendari begira ere, ez dute aurreikusten ekainean bezain beste ekintzarik egongo denik. Eta ikasleek arratsaldeetan klaserik ez dutela eta, aste egunak ere txapelketako partidak antolatzeko baliatzeke tarte zabalagoa izango dute.

#### **Ikasleen egokitzapenerako lagungarri**

Guztia, aipatu moduan, Hezkuntza Mahaia- ren babesarekin. Udal ordezkari, guraso eta hezitzaileez osaturiko bilguneak begi onez ikusi du futbol klubeko zuzendaritzaren erabakia. "Aukera on bat zela ikusten zuten, Aginaga eta Zubietatik Uda- rregira etorri daitezkeen ikasle berrien integrazio- rako adibidez", adierazi dute Usurbil FT-tik. Hezkuntza Mahaia- k trataturiko lehen gaia gainera, trantsizioak eta egokitzapenak izan da. Usurbil Cup, gai hau lantzeko gune egokitzat jotzen dute. Hezkuntza Mahaia- k erakutsitako babesarekin lasai da Usurbil FT. Baina esku artean egoki kudeatu eta kezka eragiten dieten bi gai dituzte mahai gainean. Batetik, partidetan sortu ohi diren publiko eta epaileen arteko tentsio egoerak baretzen asmatu nahi dute. Eta txapelketari duena baino garrantzi gehiago ematea saihestu. Nola kudeatu, hortxe dago gakoa.

Baliabide mugatuak dituzte. Argi diote, dimentsio handiko kirol ekimen batetaz ari gara. Ia 400 haur, guraso gehiago eta Usurbil FT-ko dozena bat kide, antolaketa lan guztiei aurre egiteko. Denei ekimenerako ilusio eta gogorik ez zaie falta, baina alderdi honetan hobetu nahi lukete. Baita hondakinen kudeaketan ere. Partidak jokatzen direnean lurtean hainbeste zabor pilatzea eragotzi nahi dute. Edukiontzia- k jarri izan dituzte, baina euren esanetan, lurretik zakarra biltzen amaitzen dute. Gai honetan ere sakondu asmo dute aurten. Argi dute antolatzaile moduan gaiotan euren ardura dutela, baina ardura, txapelketaren bueltan biltzen den jendearekin partekatu nahi dute.

### **Izen ematea eta egun beteko ekimena, ekainean**

Aldatuko ez den zerbait, izen ematearena da. Usurbil Cup txapelketan parte hartu asmo duten LHko eta DBH 1-2 ikasturteetako ikasleek, kirol ekimen honetarako ekainean apuntatu beharko dute. Antolatzaileek aurrerago emango dute izen emateko zehaztasunen berri. Hori bai, bada Usurbil FT-tik gai honen inguruan jakinarazi nahi duten ohar bat; 2013-2014 ikasturte honetako ikasleen maila hartuko dela kontuan, taldeak osatzerakoan. Alegia, apuntatzerakoan, ikasle bakoitzak aurten ze mailatan ikasten dabilen adierazi beharko duela.

Ekainetik iraileira hiru hilabete egonik, eta udako oporraldia tartean, izen ematearekin malguak izango direla iragarri dute. Taldeak hiru hilabete barru osatuta geratuko diren arren, azken orduan jokalaria berriei tartea egiten ahalginduko direla adierazi diote NOAUARI. Eta ekainerako beste hitzordu bat; Usurbil Cup txapelketak Santixabelen aurretik utziko duen hutsunea betetzeko, egun bateko jai giroko ekimen bat antolatzekotan da Usurbil FT.

- Txapelketaren hasiera: irailaren 6-7ko asteburuan.
- Finalak: irailaren 27-28ko asteburuan.
- Iraupena: 3 aste.
- Izen ematea: ekainean.
- Parte hartzaileak: minibenjaminak (LH 1-2), benjaminak (LH 3-4), alebinak (LH 5-6) eta infantilak (DBH 1-2).
- Ekimenaren izaera: ludikoa, ez lehiakorra.
- Oharra: izen ematekoan, 2013-14 ikasturte izango dute kontuan.
- Antolatzailea: Usurbil FT.

# Zubieta garaile, Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketan



Txomin Bordagarai, Antton Arrillaga, Joseba Aizpurua eta Josu Aizpurua, garaikurrak eskuetan.

Ezker paretako modalitatean, seniorretan Aizpurua anaiak txapeldun eta jubenetan, Bordagarai-Arrillaga bikoteak txapeldunorde amaitu zuen, etxekoan eta Behar Zana taldekoan aurka, larunbatean Oiartzungo Elorsoro kiroldegian jokatu ziren final saioetan. Zorionak! Hauexek dira Zubieta

garaipenera eraman duen laukoteak izandako emaitzak:

Jubenilak: Ondaro-Leonet, Oiartzun 40  
Txomin Bordagarai-Antton Arrillaga, Zubieta 30  
Seniorrak: Joseba Aizpurua-Josu Aizpurua, Zubieta 40  
Mitxelena-Santxez, Behar Zana36



Eguraldi ezin ederragoa izan zuten martxoaren 9an Belate-Arraras ibilbidea osatzera joan ziren usurbildarrek. 32 herritar bildu zituen, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak antolaturiko txangoak. Apirilaren 13an, irteera honen jarraipena; Arraras-Gorriti. Argazkia: Lurdes Hueta.

## Eskubaloia Oiardon

**Martxoak 22, larunbata**

9:30 Alebin mutilak:  
Udarregi 5B-Langile B  
9:30 Alebin mutilak:  
Udarregi 5A-Urnieta 5B  
10:30 Alebin mutilak:  
Udarregi 6B-Urnieta 6B  
11:45 Infantil neskak:  
Udarregi B-Elgoibar  
13:00 Infantil mutilak:  
Udarregi-Bidasoa Irun

**Martxoak 23, igandea**

10:00 Kadete neskak: Usurbil K.E.-Ereintza  
11:30 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Egia

## Futbola Haranen

**Martxoak 22, larunbata**

11:00 Infantilak: Usurbil F.T.-Vasconia  
13:00 Kadeteak: Usurbil F.T.-Real Union  
15:30 Kadeteen areto futbola:  
Usurbil F.T.-Internacional de Intxaurrondo B  
15:30 Senior neskak: Usurbil F.T.-Amara Berri  
17:30 Preferenteak: Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

**Martxoak 23, igandea**

11:00 Alebin federatuak:  
Usurbil F.T.-Internacional C.D.

## Lineako patinen ikastaroa Aginagan

San Praxku Guraso Elkarteak antolatu du, Usurbilgo Udalaren laguntzaz. 4-12 urte arteko haurrentzat, Aginagako frontoian. Klaseak asteazken arratsaldeetan egingo dira, arratsaldez, 16:45-17:45 artean.

- Ikastaroko egunak: martxoak 26, apirilak 2, apirilak 9, apirilak 30, maiatzak 7, maiatzak 14, maiatzak 21 eta maiatzaren 28an.
- Izen ematea: deitu telefono zenbaki honetara 636531650 (Ana).
- Kuota: Ordaindu beharrekoa, 20 euro San Praxku Guraso Elkarteko kideen haurrek, 30 euro gainerakoek.

**TXAPELDUN  
TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

ETXETRESNEN  
KONPONKETAK

Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK

645417665  
XABIER  
Usurbil

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**





Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenierritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-

kalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bateskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

### Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehenera 18:00-20:00)

### BESTELAKOAK

Jertse urdin iluna besoetan marra pare bat grisak dituena besoetan eta txapelarekin, Zumarte kanpoan galdu dut. Norbaitek aurkitu badu, Noaualko egoitzara ekarri.

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxepribatu baterako. Libre ordu des-

berdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegijelartean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekari iri gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bati gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suak salgai. Bi urte ditute eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talle, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egin da. 637974994

Telebista salgai, Sony, Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Erosi gasolina sorgailu elektriko, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

## Goardiako farmaziak martxoak 13-martxoak 23

<b>Osteguna 20</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Ostirala 21</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
<b>Larunbata 22</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
<b>Igandea 23</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
<b>Astelehena 24</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
<b>Astearte 25</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
<b>Asteazkena 26</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte

<b>Osteguna 27</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Ostirala 28</b>	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
<b>Larunbata 29</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Igandea 30</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda martxo

## 21 ostirala

■ **Jubilatu Astea: Zumaia irteera** 9:00etan, tren geltokitik. Bazkaria: Zumaia jubilatutik elkartean. Prezioa: 18 euro. Oharra: bazkari-rako izen ematea, martxoaren 13ra arte zen, Gure Pakearen bulegoan (Artzabalen).

## 22 larunbata

■ **Gure Esku Dago Eguna.** Ekimenak arratsaldean. Afari herrikoia Gaztetxean. Ondoren, bertso-musikatuak. Antolatzailea: Gure Esku Dago Usurbil.

## 23 igandea

■ **Jubilatu Astearen amaiera** 12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Aialde-Berrin. Sagardotegiko menua: 20 euro bazkideentzat, 27 euro gainerako jubilatuentzat. Izen emateari buruzko xehetasunak Artzabalen.

## Gure Esku Dago Eguna ospatuko da larunbatean

**E**kainaren 8an erabakitze eskubidearen alde egingo den giza-katea girotzeko sortu zen Gure Esku Dago taldea Usurbilen. Durango eta Iruñea eskuz esku lotu nahi da ekainaren 8an eta hitzordu horretarako gutxienez 400 usurbildar bildu beharra daude. Bilgunetik NOUA!ri adierazi diotenez, jada 300 usurbildarren atxikimendua lortu dute. Izen emate kopurua lauruhenera heltzeko geroz eta gutxiago falta da beraz. Oraindik apuntatu ez denak, bere metroa larunbateko Gure Esku Dago Egunean erosi ahal izango du, 5 euroren truke. Ohi bezala, antolatzaileek jarriko duten informazio postura gerturatuta.

Bi ekitaldi nagusiren bueltan egituratu dute Gure Esku Dago Eguna: 13:00etan sorpresa musikala



Larunbat honetan, festa giroa izango da nagusi.

frontoi inguruan. Gauean, afaria Gaztetxean. Ondoren, bertso musikatuak saioa, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Iñigo Manzisidor *Mantxi* eta Manex Mujika bertsoariekin eta Ixak (gitarra) eta Gari (biolina) musikariekin. Gai jartzailea: Haritz Casabal.

### Jubilatu Astea, azken txanpan

**Martxoak 20, osteguna**

16:30 Antzezlan: "Vivir en Villa Tatiritaina".

**Martxoak 21, ostirala**

9:00 Irteera (Usurbilgo tren geltokitik): Zarautz-Axkixu-Zumaia.

**Martxoak 23, igandea**

12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Aialde-Berri sagardotegian. Informazio gehiago: Gure Pakea (Artzabal).

### Umeen autoestimari buruzko hitzaldia

Zubietako Guraso Elkar-teak Nerea Mendizabalen hitzaldia antolatu du (argazkian), eta Kaxkapen egingo da, frontoi ondoko lokalean. Doan izango da. Gaia: "2 urtetik 8 bitarteko umeen autoestima". Ostegun honetan, martxoak 20, eguerdiko 14:30ean.



### Datozenak

#### Ikastaro berriak KzGunean

Martxoan goizez dago irekita, 9:00-13:00 artean (Informazio gehiago: 943 023 684). Hemen, datozen asteotarako ikastaroen berri:

- OpenOffice Writer Oinarrizkoa: martxoak 24, 9:00-11:00.
- OpenOffice Writer Aurreratua: martxoak 25, 9:00-11:00.
- Software Libre ikastaroa: apirilaren 1etik 14ra, 16:00-18:00.
- Sare Sozial ikastaroa: apirilaren 3tik 16ra, 18:00-20:00 artean.

#### Datorren astean, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

Datorren ostiralean, martxoak 28, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde, 20:00etan hasita.

#### Santixabeletako Jai Batzordearen bilera, martxoaren 31n

Martxoaren 31n astelehena egingo da Jai Batzordearen bilera berri bat, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Aurtengoan, Santixabel jaiak, uztailaren 1etik 6ra ospatuko dira.

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**txirriStra**  
**TABERNA**

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



**herriarrek**  
martxan en marcha



 **Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



**PARTE HARTU**

**ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela kargat-  
zeko 20 euroko bonoak zotz  
egingo ditugu.

 **Gipuzkoa**  
BERRIA

## **GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?**

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**BILERA HERRITARREKIN**  
**APIRILAK 7, OSTIRALA, 18:30ETAN POTXOENEAN**  
**USURBIL**



**URDAIRA**

**Sagardotegia**  
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**



**OTSUA-ENEA**  
SAGARDOTEGIA

**943 55 68 94**

Osinaga bailara, HERNANI



**LARRE-GAIN**  
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 5era  
TXOTX-GARAIA  
Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



**iruin**  
sagardotegia

☎ **943 36 12 29**

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



**ELUTXETA**  
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ **943 55 69 81**



**SAIZAR**  
Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39  
**USURBIL**  
Sagardotegiko erreserbak:  
**943 37 39 95**  
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



**SAGARDOTEGIA**  
**aginaga**

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

**943 36 67 10**

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

**AIALDE  
BERRI**

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea